## FORU DEKRETUA / DECRETO FORAL

Legealdi honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak duen erronka nagusietako bat da Foru Aldundiaren lana herritarrei gerturatzea. Horretarako, betiko komunikazio kanalak zein tresna eta komunikazio sistema berriak erabiliko dira.

Uno de los principales desafíos de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la presente legislatura consiste en acercar el trabajo de la Diputación Foral a la ciudadanía, utilizando para ello tanto los canales de comunicación tradicional como nuevas herramientas y sistemas de comunicación.

lldo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak uste du beharrezkoa dela komunikazio digitala ikus-entzunezko hizkuntzaren bidez bultzatzea, komunikazio argia, eraginkorra eta gardena ahalbidetzen baitu.

En este sentido, la Diputación Foral de Gipuzkoa considera necesario impulsar la comunicación digital a través del lenguaje audiovisual, ya que permite una comunicación clara, eficaz y transparente.

Gaur egun, bada kontratu bat, aurtengo urtearen amaieran amaitzen dena, ekoizpen enpresa baten komunikazioko zerbitzu osagarriei buruzkoa, testu-edukiak eta ikus-entzunezkoak egiteko, herritarrek zuzenean ezagutu ahal izan ditzaten Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekitaldiak, albisteak, informazioak, erabakiak edo jarduerak, bai eta agerpen horien dokumentazioa ere.

Actualmente existe un contrato que concluye su vigencia a finales del presente año relativo a servicios auxiliares de comunicación de una productora para elaborar los contenidos de texto y audiovisuales que permitan a la ciudadanía conocer de primera mano los eventos, las noticias, informaciones, decisiones o actuaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como de documentación de dichas apariciones.

Prestazio hori datorren urtean ere izatea behar denez, beharrezkotzat jotzen da aipatutako zerbitzu osagarrien kontratazioa berriz ere lizitaziora ateratzea.

Persistiendo la necesidad de contar el próximo año la referida prestación, se considera necesario sacar a licitación nuevamente la contratación de los referidos servicios auxiliares.

Helburu horrekin idatzi dira kontratu hori arautuko duten baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen agiriak. Agiri horien arabera, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 125.000,00 eurokoa da (BEZa barne) eta lanak egiteko epea 2027ko abenduaren 31ra artekoa izango da, urtebeteko luzapen baten aukerarekin.

A tal efecto, se han redactado los correspondientes pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas que regulan dicha contratación y que establecen para su ejecución un presupuesto base de licitación de 125.000,00 euros, IVA incluido, y una duración hasta el 31 de diciembre de 2027, con posibilidad de prorrogar por otro año.

Hala, diputatu nagusiak

Por todo ello, la diputada general

### EBATZI DU

### RESUELVE

**Lehenengo.-** Onartzea dokumentazioko zerbitzu osagarriak eta ikus-entzunezko edukiak eta zuzeneko emanaldiak ekoizteko zerbitzuak kontratatzeko espedientea (2026006CO300). Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 125.000,00 euro da, BEZa barne, eta lana burutzeko epea urtebetekoa izango da, 2027ko abenduaren 31ra artekoa, urtebeteko luzapen baten aukerarekin.Kontratuaren balio zenbatetsia 206.611,58 eurokoa da.

**Primero. -** Aprobar el expediente de contratación de los servicios auxiliares de documentación y de producción de contenidos audiovisuales y emisión de directos (2026006CO300), con un presupuesto base de licitación de 125.000,00 euros, IVA incluido, y un plazo de ejecución de un año, hasta el 31 de diciembre de 2027, con posibilidad de prorrogar por otro año. El valor estimado del contrato es de 206.611,58 euros.

FAEB3c6b6055-db9b-4bbb-908b-96b1c248c248

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

**Bigarren.-** Onartzea baldintza administratibo berezien eta baldintza teknikoen agiriak, zerbitzuen kontratazioa arautzen dutenak, alegia.

**Segundo.-** Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares y el pliego de prescripciones técnicas que regirán la contratación de dichos servicios.

**Hirugarren.**- Baimentzea 125.000,00 euroko gastua, aurrekontuko 5.0130.300.227.18.02.2027 kontu sailaren kargura.

**Tercero.-** Autorizar un gasto de 125.000,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 5.0130.300.227.18.02.2027.

**Laugarren.**- Kontratua esleitzeko prozedura irekiari hasiera ematea, eta agintzea iragarkia argitara dadin kontratatzailearen profilean.

**Cuarto.-** Disponer la apertura del procedimiento abierto para la adjudicación del contrato, y ordenar la publicación del correspondiente anuncio en el perfil del contratante.

Foru dekretu hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki horren aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean, BI HILABETEKO EPEAN, argitaratu eta biharamunetik hasita.

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante la Sección de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su publicación.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko diputatu nagusiari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka nahiz baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen agirien aurka KONTRATAZIO ALORREKO HAUTAZKO ERREKURTSO BEREZIA aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari, iragarkia argitaratu edo orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren biharamunetik hasita 15 egun balioduneko epean. Bi kasuotan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la diputada general, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer, previa y potestativamente, EL RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquél en que se haya publicado el anuncio o se hayan recibido o puesto a disposición los pliegos. En ambos casos, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial, o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

FAEB3c6b6055-db9b-4bbb-908b-96b1c248c248

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

# Sinadura laburpena
# Resumen de firmas

FDE-DN-2026-0256

Izenburua | Título:

2026006CO300 kontratazio esp. Dokumentazioko zerbitzu osagarriak eta ikus-entzunezko edukiak eta zuzeneko emanaldiak ekoizt
Exp contratación 2026006CO300 servicios auxiliares de documentación y de producción de contenidos audiovisual

Ondoren dokumentu honetan erreferentzia egiten den foru dekretu-ebazpen originalaren sinadura datuak erakusten dira.
A continuación se muestran los datos de la firma de la decreto foral-resolución original a la que hace referencia este documento.

**Sinatzailea | Firmante:** MENDOZA LARRAÑAGA, EIDER
DIPUTATU NAGUSIA
DIPUTADA GENERAL

**Data | Fecha:** 2026ko urriaren 13an

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.